

1. Erronka hau gainditzeko arkitektoak bezala jokatu beharko duzu. Baina, zer dira arkitektoak? Zer egiten dute? Beste gauza askoren artean, arkitektoek planoak egiten dituzte. Eraikitzen diren etxeak adibidez, lehenengo eta behin arkitekto batek marraztu ditu paperean.
2. Horixe da erronka hau gainditzeko eskatzen zaizuna. Zure etxeko edo zure logelako planoak marraztea. Animatzen zara ezta? Gainera, gogoratu, ikasturte hasieran gaztelanian zure logelaren planoak eta bere deskribapena egin genuela. Aurrera ba!
3. Zure logelaren marrazkia egiten has zaitezke berriro. Zer nolako forma du? nola daude bertan kokatuta altzariak?

4. Ondoren,
hormetako neurriak
har ditzakezu. Ziur
baduzula etxean
neurriak hartzeko
tresnaren bat.
Bestela zure
gorputz atalak erabil
ditzakezu ere...
adib.: zenbat beso ditu horma honek?



5. Konparatu orain hartutako neurriak eta hasierako marrazkia. Seguruenez konturatu zara zerbait baduzula hobetzeko. Hala bada, egin itzazu behar diren hobekuntzak.
6. Bukatzeko, lan osoaren kontaketa egin bideo edo audio batean. Atera ere zure marrazkiari argazkia eta bidalidazu guztia.
7. Erronka gaindituta!!